

## Gustatzen zaidana...

Umeen Kontseilua Alkatearen Jakintsuen Kontseilua da, eta modu ezberdinetan lan egin dezake: Alkatearen eskariz izan daiteke aholku eskatzen badie, eta hala aritu dira orain artean Kurtzeako Jolas Parkearen bueltan.

Baina umeen ikuspegiaren zentratuta ere egin daiteke lanik, Ume Begirada bilatu eta Umeen Herria zein izan daitekeen asmatuz. Kasu honetan haien gurak, gogoak eta beharrak ezagutzea dugu lana, eta hortik gero aztertu ze proposamen atera daitekeen herriari begira.

Atseginaren lekuari buruz ari gara ikertzen Lezamako Umeen Kontseiluan kurtso hasiera honetan... eta pasa den udan bizi izandako momentu handien oroitzapen horiek gorde eta partekatu ditugu urriko Leukon, gure ongizatearekin, hazkuntzarekin eta gure lekuarekin (herrian, munduan) zerikusia dutelako.



Bakarkako lana egin dute beraz tarte batez, nor bere oroitzapen epeletan murgilduz eta paperean marraztuz. Gero, bakoitzak egin duen marrazkian agertzen dena azaldu eta komentatu egin dugu. Abentura txiki eta handiak:

Bakion Surf egitea; Bost izarreko hotel bateko gelan siesta orduko lasaitasunean play-ean jokatzeari; Port Bravon, oesteko pelikulak grabatzen diren lekuan pelikulatako eszenak ikustea... Bizipen oso desberdinak.

Nere aitak arrantzan egiten erakutsi zidanean; bideo barregarri bat grabatu eta youtubera igo nuenean; Malagan nere izeko-osaba eta lehengusuekin, txakur bat erosi zuten, eta nere anaiari ia ia medusa batek pikatu zion... Gertakizun txiki intimoak askotan.

Legoland-en dana legoz eginda dago, etxeak ere bai; Eskozian Ariana Grande abeslaria ezagutzea; La Pinedako aquaparkerako txirristra handietan; Estatu Batuetan, zeuden gauza guztiak erraldoiak ziren gasolindegira hura, eta jende oso potoloa zegoen lekua... Bidaiak, bidaiak.

...Gustoko kontuen hari honetatik tiraka jarraituko dugu hurrengo bileratan ere... Hurrengo azaroaren 29an izango da.

Bilera honetako argazki guztiak ikusi eta jaitsi ditzakezu hemen:

<https://flic.kr/s/aHsmJ29VQV>